

## Araotzeko Elizondorako kamiñua eta saloia inaugurau ziranekua



ñatitikk Araotzera **kotxientzako kamiñua** 1930-1931 aldera urratu zan: Zapatan behera lehenengo, Jaturabeko erreka-zuloraño; hemen zubi barrixa jaso zan errota parian; eta handik aurrera, Sandailli azpitik eta presan gora, Ugarran auzuneraño ailegau zan bide barrixori. Urganetik **Elizondorako zatixa** hogeita bost bat urte beranduago modutu zan, nahiz eta ofizialki etzan 1959ko martixaren 25erarte inaugurau. Baiña egun haretan herriko eta probintziako agintarixak etziran kamiñuagatik bakarrik Araotzera etorri: auzuaren azken urtietako historixan hain inportantia izan dan **saloia** be orduantxe inaugurau zan. Obra honein eragillia Antonio **Uriarte** konstruktoria, Errotabarriko semia, izan bazan be, aroztar gehixenak lagundu euen auzolanian.

Fotografixa honeittan, ba, inauguraziño-eguneko irudixak agerketan xaku: Ugarran lehenengo, gobernadoriak zintzia moztu aurretik, Jose **Plazaola** Araotzeko parroko jaunak obra barrixa bedeinkaketan; abadiaren inguruan dira, bestiak beste, ezkerretik eskumara, Joxe **Altube**, Paulo **Zumalde**, Klaudio **Goitia**, Antonio **Uriarte**, Jose **López** maixua, Jose Maria **del Moral** Gipuzkoako gobernadoria, Bizente **Asuero** diputaziñoeko presidentia, Reyes **Korkostegi** Oñatiko alkatia, eta herriko hainbat kontzejal; monagillua Pedro **Zelaia** dogu. Beste argazki bixak be ordukuak dira. Batian lehen aittatutako agintarixok agiri dira, Araotzeko mutikuai txistuak, danboliñak eta danborra erregalauten; auzoko gaztetxuen izenian Joxe Mari **Ibabe**, Jexus Mari **Maiztegi** eta Migel Mari **Guridik** jaso zittuain musika-instrumentuok. Beste fotografixan, berriz, saloia bete jente ikusi gein-ke. Araoztarrak gehixenak, jakifiña. Ia zenbat ezaguketan dozuen!

J. E.

Argazkixak Jose Luis Plazaolak atara zittuan eta Donostian bizi dan Jose Plazaola abadiaren dira; guri Nieves Agirrerren bittartez heldu xaku. Argibidiak Nieves eta Enrike Agirrek eskuratu dosku. Eskerrik asko dano!

**Oharra:** Orain hurrenguan agertu zan lehenengo komunioko fotografixan ezezaguntzat jotzen geben Mirandako mutikua identifikau ahal izan dogu, Hernández-Urrutxi familiari eskerrak: Bizente Hernández da, Pakoren anaia, aspaldixuan Madrillen bizi dana, baiña mutikotan urte batzuk gure artian bizi ondoren, gaztetan be Oñatin lanian jardun ebena.